


Organigrama



1. ZUZENDARIA

Konpainiaren estrategia ezarri eta enpresaren barruti guztiak koordinatzen ditu; politikak eta helburu-lerro handiak markatzen ditu, bilatutako emaitzak lortzeko xedez. Aurreikusitako helburuak lortzearen arduraduna da; baita aurrekontuak betearaztearen arduradun ere.

1.1. ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zinemaldiaren politiken diseinuan, abian jartzean eta ebaluazioan hartzen du parte.

1.2. KOLABORATZAILEAK

Zuzendaritzako aholkulariak, hainbat arlotan espezialista gisa laguntzen dutenak, adibidez, Zinemaldiak AEBko produkzio-etxeekin eta «major» direlakoekin dituen harremanetan.

2. ZUZENDARIODETZA

Zuzendaria ordezkatzen du eta honen funtzioak bere gain hartzen ditu, honek hala eskatuz gero. Hautespenean Batzordearen eta Nazioarteko Ordezkarien lana eta barne-gaietako gorabeheren konponbideak koordinatzen ditu.

2.1. HAUTESPEN BATZORDEA

Zinemaldiko sail guztietako filmak hautatzen dituen taldea.

2.2. NAZIOARTEKO ORDEZKARIAK

Hainbat lurraldetako adituen sarea, hautespenean batzordearen aholkularitza lanak egiten dituen eta Zinemaldiari interesatu lekizkiokeen lanak bilatzen dituen mundu zabaleko zinematografietan.

3. FINANTZA ZUZENDARIA

Jardueraren aurrekontua kontrolatzen du eta Administrazioa eta Pertsonala sailaren arduraduna da. Sail hau Zinemaldiaren jardueratik eratorritako kontabilitate eta administrazio-zeregin guztiez arduratzen da, baita giza baliabideen kudeaketaz ere.

4. DOKUMENTAZIOA ETA FILMAK

Zinemaldiko filmen datu-basea, hautatutako filmek eskatzen duten dokumentazioa, materialak eta garraioa kudeatzen ditu. Zuzendaritzaren eta gainerako sail guztien informazio beharrianak dokumentatzen ditu. Filmekin hautaketarekin lotura duten alderdi administratibo guztiak kudeatzeaz arduratzen da.

5. GONBIDATUEN KUDEAKETA

Zinemaldiko gonbidapen ofizialak koordinatzeaz gainera, bertaratuen kontua eraman eta akreditazioak kontrolatzen ditu.

6. BIDAIK ETA OSTATUAK

Zinemaldiko taldearen eta gonbidatuen bidaiak eta ostatu-lekuak antolatzen ditu.

7. MARKETINA

Babes-hitzarmenak bilatzen ditu eta berariaz lehiaketa publiko bidez horretarako kontratatutako marketin-agentziaren lana koordinatzen du. Kontraprestazioak hitzartu eta betearazi behar dizkie babesleei; era berean, arreta pertsonalizatua ere bermatuko die.

8. KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Zuzendaritzarekin batera, Zinemaldiaren komunikazio-planaren diseinuan parte hartzen du eta hau gauzatzearen arduraduna da. Komunikazio-estrategia ezartzen laguntzen du: prentsurrekoak eta buletinak argitaratzea. Nazioko eta atzerriko prentsarako gonbidapenen eta akreditazioen politikaren arduraduna da eta bere diseinua egiten du.

9. THE INDUSTRY CLUB

Zuzendaritzarekin batera, Zinemaldiaren Industria-planaren diseinuan parte hartzen du eta hau gauzatzearen arduraduna da. Zinema-industriarekin zerikusia duten gonbidapenen eta jardueren arduraduna da eta beraien diseinua egiten du: Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Zinema Eraikitzen, Glocal in Progress eta beste zenbait ekitaldi. Zinemaldiko online bideotekaren arduraduna da.

10. EKOIZPENA

Zinemaldiaren ekoizpen orokorraren eta ospatzen den ekitaldi bakoitzaren euskarria den saila.

11. WEB ORRIA ETA INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK

Zinemaldiaren barne-kudeaketa hobetu eta kanpoko erabiltzaileek tramiteak egitea eta zerbitzuak lortzea azkartuko duten informazio sistemak eta zerbitzu informatikoak garatzeko politikak diseinatzen ditu. Web orria kudeatzen du, baita sare sozialetako edukiak ere.

12. IDAZKARITZAK

12.1. ZUZENDARITZA IDAZKARIA

Zuzendariaren agenda eta Komunikazio zuzena kudeatzen ditu. Zuzendaritzara datozen bisitak eta elkarrizketak artatzen ditu eta Administrazio Kontseilua koordinatzen du.

12.2. HARRERA

Bisitak artatzen ditu; deiei eta Zinemaldiko e-mail generikoei erantzuten die.

13. EIE CINE / IKUSMIRA BERRIAK

Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketaren eta Ikusmira Berriak programaren ekoizpena, edukien hautaketa eta gonbidatuen kudeaketa koordinatzen ditu.

14. HARREMAN PUBLIKOAK

Bere harreman publiko sarearen bitartez, Zinemaldiko gonbidatu bakoitzaren arreta pertsonalizatua eta hauen lekualdaketa koordinatzen ditu.

15. TEKNIKA

Bere ardura da Zinemaldiko film guztiak behar bezala proiektatzea. Kopia bakoitza kontrolatzen du, proba teknikoak egiten dizkie eta zikloen arduradunak koordinatzen ditu.

16. EKOIZPEN TEKNIKOA

Edizioa behar bezala garatzeko beharrezko prestazio teknikoak identifikatzen ditu, bai aretoetan, zein ekitaldietan eta gainerako lekuetan.

17. ARGITALPENAK

Zinemaldiko argitalpen desberdinak egiten ditu.

18. PROGRAMAZIOA

Hautatutako filmetatik abiatuta, Zinemaldiaren programazioa egitea.

19. TICKETING

Ticketing sisteman programazioa kudeatzea, gonbidapenen, abonuen eta sarreren salmentarako.

20. SOLASALDIAK

Filmen emanaldietan egiten diren solasaldiak eta moderazioak koordinatzen ditu, baita Horizontes Gosariak eta Zabaltegi Tabakalera Topaketak ere.

21. BELODROMOA

Belodromoan programatutako ekintza eta proiektzioak koordinatzen ditu.